

**MANUEL LEKUONAREN GOMUTAGARRI  
(1894-1987)**

Oraingoan Manuel Lekuona zanaren gomuta dakargu gure aldizkari onen orrietara. Manuel Lekuona zana aitatuaz esanda dago ez dogula gaur gure artean bizirik, il egin jakula. Gure patro andiaren eguncan egin jakon azken agurra Oartzungo eleiza nagusi ederrean Donostiko Gotzai dan J. Maria Setienek abade mordo ederragaz batera ospatu eban illeta-mezan.

Lekuona zarrak, nik dakidala, ez dau Karmel aldizkari onetan inoz idatzi. Baiña gure zuzendariaren naia izan da eta Karmel-ek ez deutso bere gomutea eta bere omenalditxoak ukatu nai. Euskaldun eta Euskalerrri osoa gara beragaz zordun.

Euskalerrriko aibeste erakunde eta alkartetan egon da eta lan egin dauan gizona izan da bera: Gasteizko Seminarioan ogei urtez irakasle, an bertan Kardaberaz Bazkunaren edo Akademiaren sortzaille eta buru, Eusko-ikaskuntzako bazkide sortzaileetako, Euskaltzain (Euskaltzaindia sortu zanean izentauriko Urgazleen artekoetatik bizirik gelditzen zan bakarra), azken urteotan sortu zan Euskalerrirako Liturgi-cuskeratzaillen Batzordeko eta Batzorde orren buru, eta abar.

Jaungoikoak urte luzeak emon deutsoz, eta Lekuonak ez ditu alperterrian galdu. Bizi guztia emon dau Euskalerrriaren aldeko lanetan eta Eleizearen aldekoetan. Eta Euskalerrriak ez



deutso ukatu bere zorra eta esker ona. Erriko agintari eta kultur gizonak an zirala, Euskalerrri osoa, mugaz andikoa eta emendikoa, Oiartzunen zan illeta egunean On Manuel zanari azken agurra egiten. Bertsolari ta guzti, erriaren agur eta omenaldi biotz-biotzetikoa egun atan egiñikoa.

Baiña il ondoko omenaldi ori ez ezik, beste omenaldi eta aitormen ederrik artuta egoan bere bizian Oiartzungo seme argia. Eta ederrenetakoa, bere erriak, Oiartzunek egin cutsana, abade egin zaneko urre-eztaien inguruan. Baiña

orduan be, an ziran Euskalerrriko alderdi biak, Bidasoaz arantzakoa eta onantzakoa. An ziran Iparraldeko gizon oso ezagun bi, Dassance eta Haristschelhar, zorabiatu rik, Lekuonaren gorasarrez Basarrik abestu zituen bertsoak eta gero bota eban bertso-puntuzko itzaldi luzea entzuten.

Kardaberaz Bazkuna ezin zeitekean gelditu bere sortzaille, arnas-emoille eta buru zana omendu barik. Tolosan itzaldizko omenaldia egin cutsan lenengo eta gero, idazle askoren artean idatzita, Omenezko Idazki-bilduma iru tomotan eskiñi eutsan Jazinto Argaia Donostiako Gotzain Jaunaren aurkezpenarekin.

Gasteizko Teologi-Ikastegiak, lenagoko Seminarioak eta orain Facultad Teológica del Norte deritxonak, Lekuona, Joxe Migel Barandiaranegaz batera, 1980n Deduzko Irakasle (Doctor Honoris Causa) egin eban orretarako batzar andi baten.

Eusko-Ikaskuntzak ez eban aitzu sortu zan ezkerro bazkide eta urte askotan Literatura-sailleko izan ebana eta 1983n Victo-

ria Eugenia Antzokian, emen be Iparraldea eta Egoaldea alkar-turik ikusi zirala, bere omenaldia eskiñi eutsan eta bere izeneko Saria emon, eta omenaldiko itzaldiak liburu baten argitaratu zituen. Eta dana egun bateko jaialdi baten gelditu ez zedin eta Lekuonaren izena eta lana gerokoentzat gogoangarri egiteko, Eusko Ikaskuntzaren *Manuel Lekuona* Saria urteroko sari egingo eban.

Gipuzkoako Aldundiak be Gipuzkoako gizon andien le-rron jarri dau gure Oiartzuarra. Bere Jauregian Lekuonaren irudia, margolari on baten lana, ipiñi dau Gipuzkoako seme os-petsuen zerrenda geitu eta Jauregi barruko ormen apaingarri.


Era askotara erakutsi deutsoe euskaldunek, eta guztien ga-netik giputzak, gizon oni deutsoen oneretxia eta guztizko aitormena. Baiña berari atsegiñik pozgarriena Euskalerriko bertsola-riak egin eutsoen omenaldia izan zan; 1979ko Abenduaren 16n, bertsolarien Elkartearen erabagiz, 40 bertsolari, Euskalerriko entsutetsuenak batu ziran Donostiako Balda Pelotalekuan euren maixu eta izen on emoillerik onenari euren maitasuna eta esker ona bertso berotan erakusten. Egun orretan, biotzak gaiñez era-ginda eta negarrari eutsi eziñik, bere erantzuneko berbak ito egin jakozan eztarrian.

Omenaldi guztiok naiko argi diñoskue ez gagozala edozei-ñen aurrean, gizon andi baten aurrean baiño; guk emen goratu ala baiño goragokoa dan baten aurrean. Ez goratzaille ez bera-tzaille askoren pekatuan ez geunke jausi gura. Kritikatzaille as-koren pekatua izaten da dana norbere buruaren neurritra ekar-tea. Pekatu orri ingles idazle ospetsu batek txapelgillearen zoroa esaten eutsan: txapel-neurri bakarra euki eta besteen buru guz-tiak txapel orren barruan sartu bearra. Guk On Manuelen lan nagusienak aitatuko doguz, eta eurak emongo deuskue egillea-ren neurria. Eurak eta lan orreik emon deutsoen izena eta andi eretxiak.

### **Gazteizko irakasle-lana**

Ogei urteko lana egin eban Lekuonak Gazteizko Apaizgai-tegian, abade Mintegian, euskera irakasten. 1916tik 1936ra, an

orduan, apaizgaientzat sortu eben euskal-ikastolan. Ez zan, ez, goizegi sortu. Baziran ama-zortzi bat urte Azkue andiak *Euskaltzale* astekaritik abadegai euskaldunci euskera taiuz irakasteko deadarra jaurti ebala. Azkue bera asi zan 1914 inguruan Gazteizen bertan abadeentat urtetan eban *El Cooperator del Clero* aldizkarian euskera sartzen, euskerazko sermoiak argitaratzen. Orain euskal-kulturari eleizgizonentzako Ikastegi atan leku zabala emon nai jako. An da Joxe Migel Barandiaran euskal-antropologia irakasteko eta an da Manuel Lekuona, besteak beste, euskera irakasteko. Onen ardurua eta egitekoa ez da euskal-gramatika irakastea bakarrik, euskal-literatura osoa be bai. Abadegai euskaldunak euren euskerea erraz, ondo eta jator erabilten ikasita urten bear eben Gazteiztik. Euskeraz idazten erraztasuna lortzeko eta euren saiotoxoak egin al izateko, ikasleen artean barruko orri bat be aterako dabe. An oituko dira, Lekuona gidari dabela, euren idazle asikiñak emoten.



Ori naikoa ez dala, bertan sortuko da *Kardaberaz Academia*. Zetako? Kardaberaz aitaren arako esanari erantzuteko: «Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Lekuonak berak azalduko dau bein Akademia orren egitekoa eta elburua: «Apaiz eta apaizgaien artean euskal-idazleak sortu eta idazten trebatu». Zelan? Idatzi eta idatziz. «Aldian bein lantxo bat, bakoitzak al zuen ondoen egiña, ekarri bear zuan. Eta, txandan txandan, astiak agintzen zuan neurrian, gure batzarretan irakurri eta aztertu». Olan ur-tengo eben andik ainbat abadek idazteko eta sermoiak egiteko eskola egokia eukela.



Lekuonaren eskolak emoi ederrak emon zituen. Neu be noizik bein illeta-mezaren batera joaten dan bati entzunda nago ez dakiela berak nongo edo zelango eskolea dauken gure abadeak euren itzaldietan ain taiuz eta ain ederto itz egiteko. Lekuonak sortu eta zuzenduriko Kardaberaz Akademiak ba dau orretan zer ikusirik, urrean.

Seminarioko euskal-irakaslearen izena laster zabaldu zan Gazteiztik kanpora. Oiturea zan Seminarioan ikasturtea asteko egiten zan itzaldia inprentan argitaratzea, ia beti ikasle gazteenak egiña. Lekuonak izan eban itzaldi ori 1917-ko ikasturtearen asieran. Gaia: *La Métrica Vasca*. Euskaltzaleen artean arrimena sortu dau. Urrengo urtean, Oiñatin, Eusko-Ikaskuntza-ren Lenengo-ko Batzar andia da. Eta ango batzarkiden artean dabil abade gaztea, bera be bazkide egiñik. Andik aurrera bazkide jarraituko dau bere bizi guztiko.

### **Aozko literatura aztertzen**

An, Oiñatiko Batzar andian entzun dauan itzaldi bat ez jako bape gogoko egin. An ikusi dau gure idazle jakitun diralakoak ez dabela gure bertsolaritza ulertzen, eta ez dirala ulertzeko gauza. Gizon arlote batzuen ganorabakoeri utsak baiño ez ei dabe urtetan Euskalerriko bertsolarien agotik. Lekuona bertsolari giorrik onenetakoan jaioa da: Oiartzunen. Eta Oiartzunen bada bertsolari bat, orduan, ez idazten ez irakurten dakiena. Alan be bertso ederrak egiten daki. Andreak apalondoan Brabanteko Jenobebaren bizitza irakurri ala, urrengo goizerako gizonak, Joan Kruz Zapirainek, bertsoan jartzen dau dana eta andreari kantaten deutsoz paperera aldatzeko. Olan poematxoa osoa sortzen dau, bertsolarien teknika eta lege arrigarritan egiña. Lekuonak ondo eta zeatz aztertu eta liburutuan argitaratu egingo dau.

Era batera euskerazko erri-literatura sakon aztertu eta Eusko-Ikaskuntzaren Bosgarren Batzarrean irakurriko dau, 1930n, azterketaren ondorioa. Azterketak aurrera eta aurrera eroanez, 1935n argitaratuko dau gai onetan Lekuonaren maisu-lana doguna: «Literatura oral euskérica». Eta euskeraz gero *Aozko eus-*

*kal-literatura* izenaz emona. Iru bat aldiz argitaratzea merezi izan dau. Eta abegirik beroena izan dau euskal-kulturan nagusi diranen artean. Liburu orretan emon deusku euskerazko erri-literatura bapateko bertsolariena, koplazarretakoa, ume kantetako eta umen olgetakoa, dana zeatz azaldu eta argi barritan jarrita, bakotxa bete lege eta teknikaz.



Liburu au euskal-bertsolaritza ulertzeko oiñarrizko liburu biurtu da. Liburu orregaitik dauke gure bertsolariak bere egillea euren maisu eta aitatzat. Oteizak eta Pelay Orozkok erderaz esanak ez ekartearren, aitatu daiguzan zan Mitxelenaren euskerazkook beintzat: «Bere saillean ez dugu izan aren ordezkorik ezta inguratzekorik ere. Euskal-gauzetarako gogorik duenak irakur beza lehen bait lehen liburu aberatz bezain argia, ezagutzen ez badu. Ezagutzen duenak ez du iñork ezer esan bearririk, bein eta berriro joko baitu, iñork eragin gabe, iturri garbi orretara». (Liburu bigarren aldiz argitara zanean, esanak).

Gure gerrate lotsagarria sortu aurretik, Gazteizko urte ederretan, beste sail batzuk be landu zituen; olerkia, eleiz-kantak, antzertia eta abar, gerrateak ixildu eban arte, beste guztiak ixildu bear izan ebenez. Agiriko lanik egin ezin, eta ixilpeko lanetara jo bearko dau.

Gauza jakifia da bere anaia abadea il egin eutsoela, ezelango epaiketa barik. Berak bizirik urten ebanean, pozik. Moja batzuen kapellau zan abade batek gorde eban bere kapellau-etxean. Gordeleku orretan egingo ditu bost urte.

### **Ixilpeko eta erbesteko lanetan**

Ostenduta egon bear dauan arren, ez da bere lanai ekin barik egongo. Libururik ezean, gogo-auznarketari ekingo deutso, askotan gogoan erabilitako gaiak aztertu eta argiago ipinten. Eta liburu barik be ez egoan beti. Kapellauak eta mojak ekarten eutsoezan sarri, batez bere maiteen zituenak: liburu zarrak, eta mojen artxiboko paper zarrak, euren mojetxearen aztarrenak argitzeko. Antxe idatzita atera zituen gero, bere *Gerrateko amabi kanta*, ain zuzen, moja bakotxari eskinitako olerkiak.

Gordelekuko bost urteen ondoren Calahorrako erbestea. Calahorrako Katedraleko artxiboa, oberik amestu ezifiekoko lekua beretzat, Euskalerriko eleizearen antziñako aldiak argitzeko. Saguaz gaztaibarruan sartuta lez dabil bera ango paper zar artean, ango agiri zarrak irakurtzen, kopiatzen eta gai bakotxa bere saillean jarten. Ordukoak ditu Calahorrako bertako Parrokien barri emoteko iru bat liburu, eta Euskalerrinari dagokozan agiriak kopiatu ditu argitara emoteko.

Andik jarraituko deutso Gazteiz-en egoala artuta eukan oitura bati: Euskalerritik Riojaraiñoko artea, eleizetako arkitektura eta eskultura aztertzea. Orduan eta gero ainbat arte-gai aztertu-ko ditu eta maixu andi baten antzera ekien Cicerone, gidari egiten eta nonaiko santuen edo irudien barri zeatz emoten.

Orduan eta gero egindako edesti eta lanez bost tomo lodi atera deutzaz argitara Kardaberaz Bazkunak. Edesti-gaiak azter-



tzean, bertsolaritzaren mami eta teknika aztertzean lez, Lekuona bere-bereak dituena bideetatik dabil sarritan. Edesti-liburu andirik edo lengo aldietako arlo zabalik artzeko libururik ez dau idatziko. Andi eta luzeena bere erriko Oiartzunena dau. Beste batzuk Donosti inguruko erri edo parrokiak argitzeko idatzi ditu. Eta beste gai batzuetarako argibideak gitxien uste dan iturrietatik ataratera jotzen dau: toki baten etimologiatik, euskerazko itz baten edo oitura batetik. Irudimena edo antz emoteko sena dau gidari. Gauzak edo jazoerak ulertzeko eta diran lez ikusteko begi zorrotza dau geienetan. Lan politak egin ditu orrela Euskalerriko jazoerak argitan ipinteko.



#### **Madre Rafols-enak ziralako paperen guzurrak**

Kondairazko gauzetan bere begirada zorrotzaz zertzuk argitu zituen ez gara zetzatasunetan sartuko. Euskalerritik kanpo sortu ziran guzur batzuk zelan guzurtatu zituen erakutsi besterik



ez. Españan Errepublikak jarri zanean, Madre Rafols zalakoaren guzur batzuk zabal ebilzen, gero ta zabalduago, egunerik egunera guzur barriak asmauta. Errepublikako gobernuaren mendean jazoten ziran erlijioaren eta eleizgizonen aurka jazoten ziran indarkeri guztiak eun urte baiño lenagotik Jaungoikoak Madre Rafols orri iragarri eutsazalakoak zabaltzen eben. Txitean pitean agertzen ziran orri esaten eben esku-idazki ziralakoak. Olango zer-esanez beterik etozan aldizkari asko, 1936ko gerrate aurretik eta gero, barriz, geiago, Francoren agintepean. Lekuonak ba ekian propaganda orren barri. Rafols orren igarketen berri emoten eban liburutxoan bat be eldu zan bere eskuetara. Berari, literatura aztertzen oituari, ez jakozan alde batzuetatik oso sinisgarri egiten: bertso batzuk txarto neurtuta, berba batzuk Madre Rafols orren egunetakoak ez ziranak eta abar. Eta orra bein, mojatxoan kapellau etxean ostenduta bizi zala, beti mojai liburu zar barrien eske egoanari, orra non ekarri deutoezan, Iruñetik ekarrita, iru bat liburu: Madre Rafols-en propaganda egiten eben bi, eta beste Madre orren egunetakoak, Contreras baten *Despertador eucarístico* izenekoa, bertso ta guztikoa. Begiratu bat eurai egiten asi da, eta On Manuelek sinistu eziñik badiño: Baiña nok ipiñi ditu liburuok nire begien aurrean era batera? An eukan Rafolsen izenean zabaltzen ziran guzurren salataria. An eukan eskuetan guzur arein iturria. Norbaitek, norbaiten esku eskola gitxikoak Contrerasen liburutik aldatutako berbaz josiriko idazkiak ziran Rafolsen izenean argitaratzen ziranak. Madre Anaia, eun urte lenagokoak ziralako paperak zituena bera zan guzurrezko paper arein zabaltzaillea eta asmatzaillea.

Lekuonak zer egin dau? Contrerasen berbak eta bertsoak alde batean eta bestean aurrez aur Rafols-enak ziralakoak kopiatu, eta txosten bat egin eta al bait ariñen aldizkariaren batera bialtzea erabagi. Nora? Jesuiten aldizkarietara ez; jesuitak Rafols izeneko paperetan eta propaganda aretan sartuegitxo ikusten ditu. Eta Dominikoen *Ciencia tomista* Aldizkariara doa, *Fuentes de los escritos de la M. Rafols* titulu pean, egillearen izena gordeta. Berak gogatsu egin eban barre, bere lantxoa dominikoen aldizkarian ikusi ebanean. Lantxo ori aldizkariatz batera laster eldu zan

Erromara. Erromatik, Rafols-en izeneko guzurrezko propaganda ikusita, beingoan bialdu eutsen Españako gotzaiñei Rafols-en aitamenik geiago egitea galazoteko agindu zorrotza. Praille dominikoak ez eben jakin nor zan artikularen egilea eta bear bada oindio ez dabe jakin. Lekuonak bere gerrateko gordeleku-tik Francoren aldeko guzurrezko propaganda bati oiñak austea lortu dau.

### **Liturgia barria euskeratzeko Batzordearen buru**

Gerratea baiña lenagotik be, Gazteizko urteetan eleizearen alde lan asko egiña zan Lekuona: Gazteizko eleizbarrutirako Kristiñau Ikasbide barria euskeratzen; Gotzain Jaunen pastoralak, artzai-idazkiak euskeratzeko Batzordetik; *Gure Mixiolaria* aldizkarira mixiolari batzuk erderaz bialtzen ebezan lanak euskerara itzultzen. Ango Seminarioan ikasle ta ikasleak ateraten eben aldizkarian Gymnasium izenekoan be aurkitzen da berak egiñiko lanen bat edo beste. Gazteizko Eleizbarrutiak langille eta serbitzari ona izan eban beti gure eleiz-gizona. Baiña Vaticano-ko Eleiz Batzar nagusiak neke barriak ezarriko eutsezan munduan izkuntza guztietakoai: Liturgiako testoak baktxari bere izkuntzara itzultzea, eta euskaldunei euskeraz, aspaldiko Jaungoikozale Bazkunaren lemak iñoanez. Laster Liturgia guztia testo barriak aberastuko dabe, testo barriak eta ugariagoak Mezetan, Sakramentuetan eta Eguneroko Eleiz-otoitzetan. Lengo testoak be euskeratu dira, baiña laster ez dabe balioko.

Euskaljerri guztirako, Baionako, Bilboko Donostiako eta Naparroako langillez osotuta, Batzorde bakarra sortuko da eta Batzordearen buru: gure Lekuona zarra (bere loba gazteagoaganik bereizteko olan izenpetzen ditu berak bere lan asko). Orduan Euskaltzaindiaren buru zan bera. Urte batzuetako nekea izango da, Batzordearentzat. Gaur amaitutzat emonda dago, argitaratuta, edo argitaratzeko bidean zatiren bat. Iru testotan zabaldu da: Baionarakoa, Donostia-Iruñerakoa, eta Bilborakoa. *Orduen Liturgia*, eguneroko otoitzerakoa, testo baten bakarrik, Egoaldekoentzat egiña. Iparraldekoak ez eben eurentzakorik egin nai izan. Bape arrazoi barik asarretu zan bein, Txipi Arbel-

bide edo olako bat, euskerazko *Orduen Liturgia* ez egoala euren gogoko euskeran egiña-ta.

Lana Batzordeko guztien artean banatuta egiten zan: bakoitzean batek testoa itzuli, kopiak banatu, batzarrean irakurri, guztien artean aztertu eta azkenengo ikutuak, orrazketak eta zuzenketak egin. Zuzenketak Lekuona jaunak jazoten zituen bere kopian, eta garbian idazteko mekanografoak, Sarobe Lezakarrak, eroaten zituen, makiñaz joteko.

Baiona aldeko batek Ordue-n liturgiaren euskera salatu ebala esan dot ez dakit orain zein aldizkari edo astekaritan. Beste salakuntza bat egin jakon ez Orduen Liturgiari bakarrik, Liturgia osoaren euskerari baiño. Eta salatzailea ez zan edozein: Koldo Mitxelena bera.



Lenengoz, itz erdika edo, Ibarzabal-ek Mitxelenagaz izaniko alkar izketazko liburuan dator. Salakuntza bata zein bestea ez-jakiñak eginak dira. Bataren ez-jakiña len aitatu dogu; salata-riak ez ekian *Orduen Liturgia* ez zala Baiona aldekoentzat itzuli. Mitxelenak uste izan eban itzultzaile-Batzordea Euskaltzaindiaren batasunaren aurkako batasun bat ezarri naiez ebillela. Beste artikulua baten salakuntza gogorragoa egin eban, Lekuona bera izentau eta gogor jotzen ebala. Mitxelenak erantzuna bear ebalata neuk urten neban Batzordearen eta Lekuonaren alde. Salakuntzak Lekuonaren izena baltziturik isten eban eta irain ori zuzendu bearra gogoratu neutsan Mitxelenari. Eta gaiñera aitzuta edo ez ete eukan Berak Arantzazuko Batzarrean esana: «Batasuna, Liturgian ez, oraindik ez». Itzultzaileen lanaren nondik norakoa lentxoago esanda gelditu da. Batzordean testo bakar bat egiten zan, baiña andik Baionakoak euren euskerara aldatzen eben, eta Bizkaikoak Bizkaikora. Guztiz, iru testo, alde bakoetako euskaldunentzat ulergarrien egiteko asnotan, beste azpiasmorik barik. Eta esan daigun Mitxelenaren alde, urrengo artikulua baten, bere salakuntza atzeratu egin ebala, Batzordeak egiñiko *Orduen Liturgiaren* euskera ederra eta jatorra zala garbi autortuz. Asarrekortxoak zan noizik bein, baiña ba ekian bere senera etorten, eta oker esanak zuzentzen.

### **Lekuona eta Euskaltzaindia**

Lengo lerroan esan dogunaz, ia ikutu dogu Lekuonak bere bizian ikusi dauan aldirik mingarrietakoa. Lekuona Euskal Akademiaren sortzailetakoa izan da. Akademia sortu zan urte berean, 1919n akademiko nausien irugarren batzarrean, erakunde barria osatzeko izentau zituezan euskaltzain urgazletakoa. Gero, gerrate ondoan, giroa apur bat ohera egiten asi danean, 1950n, euskaltzain osozko egingo dabe, eta 1967n Euskaltzain buru. Ain zuzen, Euskaltzaindiaren sorrerako berrogetamar urtegarrena, urrezkoa ezteietako, ospatzea jazo jako. Lekuona buru zala, ospatuko dira urre-ezteietako egun andi guztiak: Iruñien, Gazteizen, Bilbon, Donostian eta Baionan. Lekuona izan zan maiburuko Arantzazun egin zan iru eguneko batasun batzarrean be.



Bere kargua itxi baiño len, 1970ko urtarrilleko batzarrean, bere iru urteko burutzaren kontua emon gura izan dau: «Nere kontu ematea». Batasun kontuan Euskaltzaindiaren jokabidea argitu eta garbitu naiezko kontua da. Euskaltzaindiak ez ditu goitik bera, *por decreto* eta diktadoreki erabaki bear. Gai onetan Oinartzarren eta Ganboatarren giroa sortu ete dan edo sortuko ete dan arriskua ikusten dau berak. Burruka-giroa urrundu nai leuke Euskaltzaindiaren barruan.



Begiak itsu ez eukitea naikoa zan giro òri ikusteko. Arantzazuko batzarraren aurretik eta ostetik or izan ziran *ultimatum* emoilleak eta *zín* egilleak giroa lorrintzen. Ultimatum-ak eta *Zinak* ez dira, ez, egokienak Academia baten agintzeko, eta ez dauke ikustekorik izkuntzalarien jakintzaz ez jokabidez. Lekuanak ez eban oker ikusi orduko giroa. Eta egoera orri, burrukazko giro orri, ez jako oraindio azkenik ikusten.

Gatx oso kaltegarriak dirau euskerearen irakaskuntzan. Taldekeria dabil nagusi, eta liburuetan, eta aldizkarietan naiz egunkarietan bakotzak bere opillari su egiten diardu, bakotxa bere euskera batua edo euskalgaizto narraza saltzen dabil, eta euskarentzat inoz izan dan erri-erantzunik onena eta Jaurlaritzaren laguntzarik ugarienak alperrik galtzen. Ori bai, dana erriaren izenean, baiña talde bakotzak bere burua erritzat dauala. Lerroak idazten diardu dala irakurri dot talde eragillenetako baten illeta: euren lan guztia gora bera, euskera euskaldunen agotan atzeraka doala, eta gauzak aldatzeko diru geiagoren eske. Euskera maitagarriago egiten ez badakigu, diruak ez deusku salbauko.

Lekuonaren kritxian, taldekeria, Oiniez ganboatarren giro txarra garbitu bearra egoan, edo garbitu arte epea artu. Euskaltzaindiak ez eban jakin arrisku ori bere bidentik kentzen. Edota beste okerreko aldera jo eban. Orregaitik edo Lekuona bere etxera joan zan, bere betiko lanei ekiteko. Eta Euskaltzaindiak ez dau bere buru izanaren *kontu ematea* bera be *Euskera-n* agertu, ez alan esateko eskurik artu ari egin jakozan omenaldietan.

Beste erakundeak pozik eskiñ deutsoe euren gogo beroen oparia: Eusko-Ikaskuntzak, Kardaberaz Bazkunak, Oartzungo erriak, Gazteizko Teologi-Ikastegiak, Bertsolarien Elkarreak, Gipuzkoako Aldundiak.

Eta Euskalerriko Eleizeak, Jose Maria Setien Gotzainaren agotik ez cutsan omenaldirik txikiena egin Oartzungo illeta mezan. Ain gizon apala, ain gizon langillea, Eleizeari bere lana ta nekeak ukatu barik erakutsi ebanari, parka eskatu eutsan, ordu larrienetan bertan bera itxita euki ebelako, bazterturik euki ebelako. Eta Lekuonaren bizi guztiko abade lana eta kultur-lana gogoraturik, alango kristiñau, alango abade eta alango kultur gizon izatea beti balio ederrekoa izango dala autortu eban. Euskalerriarri eta Eleizeari izan eutsan leialtasuna ez dago, ez, Lekuonari ukatzerik.

Alan abestu eutsoen Gazteiz-en 1980ko zezcillaren 15n, *Deduzko eleiz-ikaste* egin ebenean eta gora-kantu aretako berba-

kaz arnaitu nai dogu Karmel-eko lantxo au:

*Lekuona'tar Manuel gizon ospetsuari  
euskera izkuntzan eta euskal bertsolari-gaietan jakintsu bikainari  
euskera-maixuen maixu letaltsuari  
leen emen ikasle eta irakasle izanari  
eta beti apaiz jator irauuari  
ospe ta bake betea.*

*Ospea emen Euskaerrian  
ospea mundu osoan,  
ta emen aritu zituen neke  
ta lan guztien ostean,  
bake betea bedi arentzat  
betiko bake lekuan,  
ain maite zitun bertsolarien  
eta aur txikien artean.*

*L. Akesolo*